

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2021EKO ABENDUAREN 1EKOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2020-2021 IKASTURTEAN HABEREN KOMUNIKAGAITASUN-MAILAK EUSKALTEGIKO EDO AUTOIKASKUNTZARAKO ZENTRO HOMOLOGATUETAKO EBALUAZIOAN MAILAREN ATALASEA GAINDITUZ, EDOTA EGIAZTATZEGINTZAREN EREMUKO DEIALDIETAN HABEREN A1, A2, B1 ETA B2 EUSKARA-MAILAK EDO BALIOKIDEAK GAINDITU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEN DIZKIENA.

HABEren zuzendari nagusiaren 2021eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez 2020-2021 ikasturtean HABEren komunikagaitasun- eta euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu dituzten ikasleei dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egin zen. Ebazpena uztailaren 14ko EHAAren argitaratu zen, eta bere huts-zuzenketak, uztailaren 30 eta abuztuaren 9an.

Deialdi horretan zehaztutako prozedura eta irizpideak aplikatu ondoren eta deialdi bereko 6. eta 7. oinarriek ezarritakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- HABEren A1, A2, B1 eta B2 komunikagaitasun-mailak euskaltegiko mailaren atalasea gaindituz edota egiaztatzegintzaren eremuko deialdietan euskara-mailak edo baliokideak egiaztatu eta Ebazpen honetako I. eranskinean jasotzen diren ikasleei adierazitako dirulaguntza ematea. Dirulaguntzaren zenbateko osoa 2.152.326,25 eurokoa da.

Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak edota euskaltegietan gainditutakoak, bakoitzak euskaltegietan edo autoikaskuntzarako zentro homologatuetan ordaindu eta adierazi dituen matrikula-kopuruak, HABEk aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 8. oinarriak dioenari begira.

Bigarrena.- Ebazpen honetako II. eranskinean aipatzen diren ikasleei dirulaguntzarik ez ematea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla-eta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikokoaren iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren web orrialdean argitaratuz (www.habe.euskadi.eus).

Laugarrena.- Ebazpen honetako I. eranskinean esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

Bosgarrena.- Interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka egiteko, gora jotzeko errekurtoa jar daitekeela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2021eko abenduaren 1ean.

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.